

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Atal honetan, gure proiektu hau aurrera eramateko kontaktuan jarri behar garen elkarte desberdinetaz hitzegino dugu, eta hauek eskaintzen diguten zerbitzu eta produktuak azaldu.

Hasteko, gure aplikazioa aurrera eramateko ez dugunez programazio ezagutzarik, programatzaile bat kontratatuko dugu. Hau, Fiverr plataformaren bidez egingo dugu, aukera asko eskaintzen dituelako prezio desberdinetan eta gure egoerari hoberen moldatzen den pertsona bat aurkitzea erraza delako.



Gainera, Google play eta App Store-kin ere kontaktuan jarri beharko gara plataforma horietan gure app-a eskuragarria izateko. Gaur egun, munduko mugikor ia guztiek dute behintzat hauetako zerbitzu bat, beraz hauen bidez munduko pertsona ia guztien eskura egongo da gure app-a.

Bestalde, bankuarekin (BBVA) kontaktuan jarri beharko gara, hasiera batean mailegu bat beharko dugulako gure proiektuak behar dituen elkarte desberdinekin lan egin ahal izateko eta gainera horren ondoren gure app-tik lortzen dugun diru guztia kontu korrante batean gorde ahal izateko.



Horrez gain, gure lanari ekiteko lehenengo bi urteetarako UGGASAKo lokala alokatuko dugu. UGGASAK kapital publikoa erabiliz gurea bezalako proiektuei laguntzen die, Urola Garaian ekintzailetasuna bultzatzeko asmoarekin. Honek modu merke batean gure proiektuaren lehen pausoak ematea ahalbidetzen digu. Gainera, taldekide guztiak batera egotea ezinbestekoa da proiektua kohesionatua egoteko, horregatik UGGASA oso aproposa da leku bat eta wifi konexioa ematen digulako, hori bai, lokala ez da bezeroentzako irekita egongo, gure artean ideia berriak eta app-a gehiago garatzeko besterik ez da.



